



## **Eskola kirolean neska-mutilen partaidetza mistoa edo banatuta: datuetan oinarritutako proposamena**

**Ainhoa Azurmendi Echegaray**  
2017 ekaina

Sustatzaileak:



E [info@aventoconsultoria.com](mailto:info@aventoconsultoria.com)  
[www.aventoconsultoria.com](http://www.aventoconsultoria.com)

## AURKIBIDEA

---

1. Sarrera .....	4
2. Planteamendu teorikoa .....	6
3. Zer dakigu esperientziari esker? .....	9
4. Hernaniko Udalak eta Pasaia-Lezo Lizeoak egindako azterketa.....	12
4.1. Hernaniko hausnarketa .....	12
4.2. Pasaia-Lezo Lizeoko azterketa .....	16
4.2.1.Partaidetza datuak .....	17
4.2.2.Galdeketak .....	19
4.2.3.Behaketa erregistroak .....	24
5. Ondorioak eta etorkizuneko erronkak .....	29
6. Bibliografia .....	31

## TAULA ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

---

### TAULAK:

1. Banatuta parte hartzearen aldeak .....	14
2. Elkarrekin parte hartzearen aldeak .....	15
3. Talde mistoetan sexuaren arabera konparaketa aldagai ezberdinetan .....	20
4. Nork parte hartzen du gehien? galderari erantzuna .....	21
5. Hurrek gaineratutako iritziak .....	22
6. Nesken taldeetako partaideen iritziak .....	23
7. Mutilen taldeetako partaideen iritziak .....	23

### IRUDIAK:

1. Neska mutilen partaidetzaren bilakaera eskola kirolean: benjaminak .....	12
2. Neska mutilen partaidetzaren bilakaera eskola kirolean: alebinak .....	12
3. Neska mutilen partaidetzaren bilakaera eskola kirolean: infantilak .....	12
4. Hernaniko eskola bakoitzean matrikulatutakoen partaidetza eskola kiroleko maila ezberdinetan 2016.....	13
5. Pasaia-Lezo Lizeoan maila ezberdinetan matrikulatutakoen partaidetza eskola kirolean 2016/2017 .....	17
6. Talde mota bakoitzean izena-eman duten neska-mutilen kopurua .....	18
7. Entrenatzaileen prestakuntza sexuaren arabera eta entrenatzen dituzten taldeak .....	19
8. <i>Guztiak berdin parte hartzen dute?</i> galderari erantzuna .....	21
9. <i>Nork parte hartzen du gehien?</i> galderari erantzuna .....	22
10. Baloia norabidearen portzentaiak behartutako partidetan .....	25
11. Baloia norabidea behartutako partidetan .....	26
12. Baloia norabidea kirolaren arabera .....	26
13. Iniziatiba kopurua partida bakoitzean sexuaren arabera .....	27
14. Gol kopurua partida bakoitzean sexuaren arabera .....	28

## 1. Sarrera

Urteak joan, urteak etorri, eskola kiroleko esparruan behin eta berriz mahai gainean agertzen da neska-mutilek elkarrekin edo banaturik parte hartu behar duten auzia. Zalantzarik gabe, emakume eta gizonen berdintasuna, eta beraz hezkidetzaren, euskal hezkuntza sistemaren baloreetako bat da. Alabaina, badakigu jakin berdintasunean hezitzeko oinarri teorikoa eta ideologiaz haratago, hezitzaileen prestakuntza ere aipatu balorearen garapenaren ardatz dela. Halaber, ezin ahantz daiteke familiek ere badutela zer esana gai honetan, eta entzutea edo irakurtzea gustoko ez dugun arren, gure gizartean oraindik ere ondo errotuta dirautela sexismoan eta estereotipoetan oinarritutako sozializazio prozesuek. Tamalez, berdintasunean oinarritutako heziketa bermatzeko modu kontzientean egin behar da lan, eta horretarako ezinbestekoa da hausnarketa prozesu sakona egitea, edota genero ikasketak burutzea.

Ezin esan daiteke egun hezkuntza sisteman genero ikuspegia barneratuta dagoenik. Egia da EAEko legediak<sup>1</sup> hala ezartzen duela, eta hezkuntza esparruko araudiek emakume eta gizonen berdintasuna sustatze aldera hezkuntza maila ezberdinetan (lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan, heziketa zikloetan, unibertsitatean) genero ikuspegia sartzea eskatzen dutela. Baina zoritxarrez ardura hori egun pertsona zehatzen konpromezuaren menpe geratu da, bereziki goi mailako ikasketei dagokionez. Ondorioz, graduak burutzen dituzten ikasleen genero ikuspegiaren inguruko hausnarketa norbere ezagutza edo ikasketa ibilbidean zehar topatu dituzten irakasleen araberakoa da, eta ez ikasketa-planak hala ziurtatu duelako. Benetan genero ikuspegia hezkuntza sisteman barneratuta egongo balitz ez lirateke beharrezkoak izango hezkidetzaren edota berdintasunari buruzko berezko tituluak edo masterrak. Eta gizartea osatzen dugunok ere, ez genituzke behin eta berriz errepikatuko etxean, lagunartean, lanean eta kalean, historian zehar jaso ditugun jarrera eta jokabide matxistak.

Bada kirol arloan zentratzen bagara, eta kasu honetan eskola kirolean, egoera oraindik eta larriagoa da. Batetik, esan behar da, gizarteko arlo ezberdinen artean kirola berdintasuna sustatzeko erresistentzia eta oztopo gehien jartzen dituenetakoa dela, eta hain zuzen arlo hau izan da gizonen maskulinitasuna erakusteko eta mantentzeko eremu nagusia. Bestetik, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritza kirol arloko lanbideei buruzko legedia osatzen ari den arren

---

<sup>1</sup> 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakume eta gizonen berdintasunerakoa.

(honek berez onurak ekarriko ditu kirol arloko langileen lan egoera arautzeko) eta hainbat ikastetxek edo Udalek jada begiraleak kontratu bidez lanean dituzten arren, arlo hau batik bat boluntariorizan edo orainsari txikien bidezko hartu-emanean oinarritzen dela. Eta azkenik, arestian aipatu bezala, begirale edo entrenatzaile hauek guztiek ez dute hezkidetzan oinarritutako heziketa jaso eta ez daukate kirola hezkidetzan oinarrituz erakusteko prestakuntza egokia. Beraz, haien lanean genero ikuspegia sartzeko ahalmena, kasu honetan ere, norbere ardurapean edo hausnarketa mailaren baitan geratzen da.

Honenbestez, nahia eta errealitatearen arteko arraila uste baino handiagoa dela esan behar da. Aatik, hau guztia kontuan hartu behar da eskola komunitatean, eskola kiroleko batzordeetan, guraso elkarteetan, eta edozein testuinguruetan, hezkidetzan oinarritutako hezkuntza aldarrikatu nahi denean, eta batez ere eskola kirolean neska-mutilen partaidetza nahastua edo mistoa izan beharko litzatekeela esaten denean. Lehenik eta behin, gogoan izan behar da eskola kiroleko eredu hezitzaile batek ez duela hezkidetzan bermatzen. Hortaz, eskola kirolean partaidetza mistoa ezartzeak ez du esan nahi berez emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko modu hobereana denik, batik bat, sozializazio prozesuan haur guztiek emakume eta gizon izateari buruz ingurutik jasotzen dituzten muturreko mezuengatik; kirol arloak berezko duen izaera maskulinoagatik; eta hezitzaileek hezkidetzan lantzeko dituzten mugengatik.

Esandakoagatik guztiagatik, ezin esan daiteke irtenbide erraza duen arazo baten aurrean gaudenik. Horregatik, oso garrantzitsua da haurrak nahastu edo banatu erabakia hartzeko orduan argi edukitzea zergatik eta zein baldintzetan egiten den, eta neska-mutilen etorkizunean izan dezakeen eragina aurreikustea. Eta hain zuzen, urtez-urte eztabaida gai bihurtzen den auzi hau jorratzen da dokumentu honetan: eskola kirolean ekintza mistoak edo banatuak antolatzea.

Lan hau **Hernaniko Udala** eta **Pasaiaiko Udalari** esker burutu da. Bi Udalek, norbere aldetik baina momento berean, gai hau jorratzeko eskatu zioten Aventori. Guk, hipotesia aldez aurretik argi izan arren, erronkari heldu eta tokiko agenteekin elkarlanean egoera aztertu dugu eta hausnarketa egin dugu; metodologia ezberdinen bidez aipatu aukeretatik neska-mutilen hezkuntza, ikaskuntza, autonomia, jabekuntza eta gozamina gehien bermatuko duena antzeman nahi izan dugu; eta honen gainean erabakiak hartzeko argudioak jaso eta eskaini nahi izan ditugu. Ondorengo ataletan azaltzen dira ibilbidean zehar emandako pausoak eta ateratako ondorioak.

## 2. Planteamendu teorikoa

Jarduera fisikoa gorputzaren jabekuntzarako tresna indartsua da. Badakigu jakin jarduera fisikoaren bitartez norbere gorputzaren kontzientzia hartzen dugula, plazerra sentitzen dugula eta osasuntsu manentzen garela. Alfabetizazio motore goiztiarrak bizitzarako arlo, eginkizun eta egoera ezberdinetarako oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzen digu: koordinazioa, oreka, malgutasuna, indarra, etab. Honetaz gain, eskola garaian kirola egitean, jolas fisikoetan, elkarbizitzarako garrantzitsuak diren baloreak ikasten dira: lankidetzak, errespetua, elkarbanatzea, lehiatzea, laguntasuna, etab. Halaber, gorputzaren autonomia eta askatasuna ahalbidetzen du, bereziki, kalean edo naturan egiten badira. Beraz, testuingurua hau izanik, ez dugu zalantzarik eskola kirolak norbere garapenean garrantzia handia duela, eta horrexegatik hain zuzen, lan handia egin da gurean kalitatezko eskola kirola sistema bat osatzeko.

Baina oinarrizko ideia argi izan arren, aurreko atalean aipatu bezala, emakume eta gizonek oraindik ez dituzte modu berean eskuratzen gaitasun motoreak eta gorputzaren jabekuntza. Autore askok defendatzen dute genero sozializazioak eta estereotipoek –sexuaren arabera gizarteak ezartzen dituen ezaugarriak- neska eta mutilek egiten duten jarduera fisikoan eragiten duela. Azurmendik (2016), besteak beste, Chavalaevak eta beste 2013an; López Crespok 2007an; Fontechak, 2007an; Hively eta El-Alaylik, 2014an; eta Piedra de la Cuadrak, 2016an; egindako lanak ekartzen ditu gurasoen jarrerak eta mezuek, haurrei jartzen zaizkien jantziek, jostailuek, komunikabideek, eredu ezak, eta heziketa fisikoko irakasleen aurreiritziek nesken kirol jardueran duten eragina azaltzeko. Izan ere, ingurutik jasotzen dituzten mezuek neskek kirolarekiko mutilek baino erakargarritasun gutxiago sentitzea eragiten dute.

Fontechak (2007) eta López Crespok (2007) orohar neskei kirola egiteko aukera gutxiago ematen zaizkiela diote, eta hezitzaileek neska-mutilekiko itxaropen eta uste ezberdinak dituztela. Nolabait kontzienteki edo inkontzienteki barneratu egiten da neskek jarduera fisiko gogorra gustoko ez duten ideia; lagunekin egotea irabaztea baino gustokoagoa dutela; kontaktu fisikoa ekiditen dutela; eta bigarren hezkuntzara iristean lagunekin batera kirola utzi egingo dutela. Antza, pigmalion efektuaren tankerako zerbait izango litzateke: neskek ere konturatzen dira haienganako interesa ez dela mutilenganakoa bezain bestekoa –honek ere eragina du emakumeen kirolean jartzen diren baliabideen kopuru eta kalitatean-, eta barneratzen dute agian

kirola ez dela nesken berezko eremua. Ondorioz, kirola mutilek baino errazago uzten dute (Azurmendi, 2009). Azken ideia hauek orain gutxi berretsi dituzte Iglesias eta bestek, 2013an, eta Kirk eta Oliverrek, 2014ean (Azurmendi, 2016). Aipatu autoreek bat egiten dute sarreran aipatu den baieztapenarekin: neskek jarduera fisikoa gustoko izateko ezinbestekoa da ereduak edukitzea; jarduera motorraren bitartez sentsazio positiboak bizitzea; eta irakasle edo teknikariek, hezkidetzaren bitartez, neska-mutil guztien abilezia motorrak lantzea eta ez egun gertatzen den moduan, soilik abilezia fisiko gehien dituzten neskengan zentratzea.

Halaber, Fontechak (2016) dio tradizio judeotar-kristauak emakumeen gorputzaren plazerra debekatu duela, eta bereziki mugimendu askatasuna eta gorputzaren mugimenduaz gozatzea aipatzen ditu. Autore honen ustez, debeku honek eragina izan du emakumeek gizonen baino gutxiago parte hartzeko jolasa bera sustatzen duten kirolean –talde kirolak- edota naturan egiten diren kirolean, hain zuzen, joan-etorri luzeagoak edo etxetik kanpo lo egitea eskatzen dutenak.

Azurmendik (2009; 2016) talde kirolean aritzeak dakartzan onurak aipatzen ditu: talde pertenezia sentimendua gure gizartearen ezaugarri da. Talde baten partaide izateak harreman-dinamika ugari sustatzen ditu; lidergoa kudeatzen ikasten da; irabazten eta galtzen; helburu komun baterako lankidetzan lan egiten; protagonismoa hartzen eta behar denean besteei uzten; inizatiba lantzen da; etab. Eta egun neskek ez dute mutilen aukera haina hau guztia eskola kirolaren bitartez lantzeko, bereziki taldeko kirolean; mutilak gailentzen dira protagonismoa hartuz eta askotan neskek haien espazioa eztabaidatu gabe utzi egiten dute. Gizartearen ispilu dira jarrera hauek, emakumeen gorputza eta espazioaren jabekuntza ezaren ondorio<sup>2</sup>.

Honen harian, Martinek (2006) eta Knijnik (2015) tradizioz gizonezkoetat hartu diren bi kirolean, hain zuzen errugbian eta futbolean, emakumeen taldeko esperientziak ekarritakoa aipatzen dute. Haien ustez, estereotipoen apurketaz gain, hots, emakumeak indartsuak ere badira eta gustoko dituzte kontaktua eskatzen duten kirolak, emakume hauek, taldeari esker, gizarteak ezarritako oztopoei eta kritikei (gorputz itxura maskulinoa, feminitatea galtzea) errazago aurre egin ahal izan diete barneko kontraesanak –disonantzia kognitiboa- bizi gabe. Halaber,

---

<sup>2</sup> Nahiz eta lan honetan gai hau jorratuko ez dugun arren, esan behar da honek lotura estua duela, esaterako, eskoletako patioetan gertatzen den espazioen banaketarekin. Egun oso egitasmo interesgarriak lantzen ari dira EAEko ikastetxe ezberdinetan patioetan ere hezkidetzak lantzeko.

norbere gorputzarekiko onarpen eta gogobetetze handia garatu dute, eta taldearen esperientzia berak (entrenatzea, jokatzeta, bidaiatzea, etab.) jabekuntza ekarri die.

Hau guztia kontuan hartuta, López Crespok (2007) esaten duen moduan, zalantzarria da kirolean neska-mutilak elkarrekin jartzeak onurak ekartzea, eta egungo egoerak berdintasunean heitzeko baldintzak ez ditu bermatzen. Iritzi berekoa da Matilde Fontecha, hezkidetzako fisikoan aditua, EHUKo irakaslea, eta hogeita hamar urtez arlo honetan lanean jardun duena. Hernaniko Udalerako eta Pasaiaiko Udalerako lanak egiten hasi baino lehen elkarriketatu egin genuen bere iritzia jasotzeko, eta baldin eta neska-mutilen eredu nahastua baztertu, landa-lana diseinatzeko laguntza eskaini zigun.

Bestalde, esan behar da 2008an Auentok, Gipuzkoan eskola kiroleko kudeatzaile ziren Dan Lertxundi eta Pablo Muriasen ezagutza lagun izanik, auzi honen inguruan txosten bat idatzi zuela Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritzaren enkarguz. Txosten honetan partaidetza bereiztua gomendatzen zen, eta talde mistoak salbuespen egoeretara mugatzen ziren. Hau da, haurrak ez geratzea jokatu gabe haien sexuko taldea osatzen ez bazen, betiere, hau aldi baterako erabakia izanik<sup>3</sup>. Izan ere, txikitatik nesken kirolarekiko interesa sustatzeko garrantzia aipatzen zen, neskei zuzendutako kalitatezko eskaintza eginez eta jarduera horietara baliabide egokiak bideratuz -kontuan izan behar da orohar mutilen baliabide hobeak eskaintzen zaizkiela kirola egiteko, aipatu lez, inbertsioztat hartzen delako, haiek kirolean jarraituko duten ziurtasuna handiagoa delako, eta neskek baino abilezia gehiago dituztela pentsatzen delako, nesken sozializazioko mugak kontuan hartu gabe-.

Gauzak horrela, honako idatziaren haserako planteamenduari helduz, alde aurretik gure hipotesia neska-mutilek banatuta jokatzeta hobe dela zen, bederen, gizartean eta ondorioz kirolean, emakume eta gizonen berdintasunerako aurrerapauso nabarmenak ematen ez diren

---

<sup>3</sup> Ezagunak dira noizean behin komunikabideetan azaltzen diren kasuak, mutilekin jokatzen duen neska bati finala jokatzen ez uztea araudiak ez duelako onartzen. Ligan utzi bai (ziurrenik neska bat edukitzea desabantaila dela pentsatuko dute besteek) eta finalean araudia zurrin jarraitu. Zer dela eta? Haurrak dira, ez du zentzurik horrelako erabakiak hartzea. Baina batez ere, kontuan izan behar da neskato horrek, egungo kirol antolamenduan, etorkizunean ez duela jokatzekeo talderik izango baldin eta ez bada inguruan nesken futbola sustatzeko kalitatezko proiekturik abian jartzen, edo gurasoek kotxea hartu eta urrutiko beste talde batera joateko laguntza ematen ez badiot. Azkenean neska honek kirola utziko du eta berriro ere bueltaka hasiko gara neska batek mutilen artean jokatzekeo aukeraz hitz egiten. Futboleko, esaterako, Gipuzkoako kasua oso adierazgarria da; 2003an hasi zen emakumeen futbolaren berregituraketaren ondorioz (Avento proiektu honetan idazkaritza teknikoaren arduradun izan zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz), eskaintza handitu eta eskariak ere halaxe erantzun zuen. Orduetik hona nesken partaidetza %120 handitu da.



artean. Alabaina, ikasturtez-ikasturte gaia bera eztabaida gai denez, ezinbestekoa iruditu zitzaigun auzi honi buruz informazio gehiago jasotzea eta, teoria, iritzi eta usteetaz haratago, genero ikuspegitik egindako azterlan baten bidez erabakia hartzeko argudioak eskaintzea.

### **3. Zer dakigu esperientziari esker?**

Euskal Autonomia Erkidegoko eskola kiroleko eremuan aspalditik egin dira neska-mutilen partaidetza nahasiak edo mistoak; batzuetan beharragatik, eta besteetan, berdintasuna sustatzeko modua zen usteagatik. Ondorioz, egun badauzkagu hainbat adibide (kasu honetan Gipuzkoakoak) gogora ekartzeko. Hona hemen bere garaian partaidetza mistoa ezarri zuten herrietako hainbat adibide, ondoren, nesken partaidetzak behera egin zuela ikusita, berriro ere partaidetza banatuta ezartzea erabaki zutenak: Astigarraga, Beasain, Hernani eta Zumaia.

Antxon Alberdik, Zumaiako kirol teknikariak azaldu duenez, partaidetza mistoa jarri zenean nesken kopurua ez zen gutxitu izen-emateko orduan, baina bai aldatu zela parte hartzeko modua: neskak alboratuta geratzen ziren. Ondorioz, partaidetza berriro ere banatzea erabaki zuten.

Egun Hernani eta Astigarragako Udalek eskaintza bateratua egiten dute, eta neska-mutilen partaidetza banaturik dago. Hernaniko Udalak partaidetza mistoa edo banatuari buruz hausnarketa egin nahi izan du; ez partaidetza kopuruagatik, urtero mahai gainean jartzen den gaia delako baizik.

Hauetaz gain, Hondarribia ere aipatu dezakegu. Bere garaian nahastea erabaki zuten, eta egun eredu honek indarrean jarraitzen duen arren, Ibai Amezketak, Talaia Eskolako kirol koordinatzaileak, nesken partaidetzak behera egin duela adierazi du herriko kirol arloko Plan Estrategikoa gauzatzeko egin berri diogun elkarrizketan.

Bada ere egun partaidetza mistoa duen eta banatuz gero nesken partaidetzak gora egingo lukeela uste duenik ere: hau Eibarreko kasua litzateke. Eneko García, eskola kiroleko

koordinatzaileak, hala adierazi zigun herriko kirol arloko diagnosirako 2015ean egin genion elkarrizketan.

Bestalde, Pasaiaiko Pasaia-Lezo Lizeoko kasua egongo litzateke. Guraso Elkartetik egindako eskariari erantzunez, 2016/2017 ikasturtean haurrei talde mistoetan parte hartzeko aukera eman zitzaien. Izena emateko orduan hiru aukera izan dituzte: nesken taldean, mutilen taldean, edo talde mistoan. Hurrengo ataletan zehaztuko dugu kasu hau, lanaren oinarrietako bat izan baita.

Jakina da hemen aipatu diren adibideetaz gain beste hainbeste egongo direla. Aventon ere jaso izan ditugu deiak honen inguruan iritzia eskatuz, esaterako, Lazkaoko eta Zarautzeko eskoletatik.

Lan honetarako ere Jokin Agirre eskola kiroleko koordinatzailearen iritzia jaso dugu. Jokin Agirrek SHEE-IVEFen egin zituen ikasketak eta hogeit hamar urte daramatza Oarsoaldeako eskola kirolean murgilduta. Horretaz gain, eskubaloiko entrenatzaile nazionala da eta urteetan zehar Errenteriako Ereintza Eskubaloiko mutil zein nesken taldeak entrenatu ditu; baita ere, Euskadiko eskubaloiko jubenil mailako nesken hautatzailea izan da. Bere ustez, talde mistoak sortzea ez da egokia da nesken kirol-garapenerako. Talde hauetan abileziak dituzten neskek ondo konpontzen dira, kirol maila hobetzen dute, eta taldeetan onartuak izaten dira. Baina hain abilak ez diren neskek aldiz ez dute hobekuntza nabarmena lortzen, ezta protagonismoa eta gozamina ere. Beraz, kasu honetan atal teorikoan aipatutakoak baieztatuko lirateke: garrantzitsua da neskek-neskekin talde sentimendua sortzea, talde bezala garatzea, eta lorpenak eta porrotak elkarbanatzea. Honek eragina izango du kirol mailan eta kirola egiten jarraitzeko gogoan –aurreko atalean aipatzen ziren esperientzia positiboak eta satisfazioa-.

Beraz, sozializazioan kirol jarduerarekin izandako loturak, gorputzaz gozatzeko askatasunak, esperientzia positiboak, gorputz jabekuntzak, hezitzaileen prestakuntza hezkidetzan, laguntasunak, talde pertenezkiak, protagonismoak eta jabekuntzak, guztiek, eragina izango dute kirola egiten hasi eta horretan jarraitzeko. Honen harian, heziketa fisikoa eta kirolaren psikologian aski ezagunak dira txikitatik kirolerako motibazioa sustatzen duten bi alderdi nagusiak: bata, gauza berriak ikasten diren sentsazioa edukitzea, eta bestea, lagun artean ondo pasatzea (Buceta, 2004).

Hau guztia kontuan hartuta, oso garrantzitsua da AEM Lleida taldeko neskek lortutako balentria bezalako kasuekin erakunde eta komunikabideek egin dutenaren oso bestelako interpretazioa egitea. Nesken futbol talde hau mutilen ligako txapelduna izan da. Askok adibide hau erabili dute neskek mutilekin batera jokatu ahal dutela esateko, horixe dela nesken gaitasunaren froga. Gure ustez nesken futbolerako gaitasuna aski frogatuta dago. Lleidako neska talde honek lortutakoak erakusten duena da, nesken taldeetan inbertituz gero, serio tratatuz gero, eta irakatsiz gero, kalitatea lortzen dela. Neskek behar dutena da baliabideen inbertsioak ere haien taldeetan egitea, entrenatzaile prestatuak eskaintzea, haiek ere mutilen entrenatzaileen parera baloratzea (esaterako, ordainsari, estatus edo onarpen mailari dagokionez), entrenatzeko baldintza duinak eskaintzea eta kalitatezko kirola –futbola kasu honetan- irakastea.

Esan behar da baita ere, eredu mistoa ezartzeko orduan zenbait erakundek baldintzak ezarri izan dituztela taldeak osatzeko eta hauek zelaian jokoan daudenerako. Esaterako, Bizkaiko Foru Aldundiak talde mistotzat bost kideetatik gutxienez bi sexu berekoak zirenak hartzen zituen, eta banaketa hau partida guztietan uneoro zelaian mantendu behar zen (Azurmendi, 2005). Eibarreko eskola kirolean ere antzeko araudia onartu zuten. Hala ere, txosten honen haserako atalean esan bezala, kontuan izan behar dugu taldearen egitura berak –kasu honetan, mistoa eta sexu bakoitzeko kideen kopurua orekatua- ez duela bermatzen hezkidetzak eta emakume eta gizonen berdintasuna.




Testuingurua beraz anitza da. Baina argi dagoena da, oraindik ez dugula eredu mistoak nesken partaidetza handitzea ekarri duen esperientziarik ezagutu, eta bai ordea, nesken kopuruak behera egitea ekarri dutenak. Esan bezala, egungo gizartean ez dago emakume eta gizonen berdintasuna, eta egoera hau kirolean ere islatzen da. Ondorengo atalean azalduko dugu gai honen inguruan datuak jaso eta hausnarketa egiteko Hernanin eta Pasaia-Lezo Lizeoan egindako lana.

## 4. Hernaniko Udalak eta Pasaia-Lezo Lizeoak egindako azterketa

### 4.1 Hernaniko hausnarketa

Hernanin egun neska-mutilen partaide kopuruan alde handiena benjamin mailan aurkitzen da; arraila hau gutxitu egiten da alebin mailan, eta infantiletan nesken kopurua mutilena baino handiagoa da.

**1, 2 eta 3 irudiak: neska-mutilen partaidetzaren bilakaera eskola kirolean: benjaminak, alebinak eta infantilak**




Iturria: Norberak egina Hernaniko Udaleko datuetatik abiatuta.

Infantil mailan eskola kirolean nesken kopurua mutilena baino handiagoa izateak, mutilak jada kirol elkarteetan daudela adierazi dezake. Beraz, herriko elkarteetan neska eta mutilei zuzendutako eskaintzaren azterketa kirolez-kirol egitea beharrezkoa da, izan ere, eskola kirolek kirol federaturako bidean neskek kirola uzten dute eta beharrezkoa da hori ekiditeko bitartekoak jartzea.

Honen harian, 2006ean Auentok Hernaniko Udalaren enkarguz egindako azterlanak agerian utzi zuen herrian emakumeei zuzendutako arlo federatuko kirol eskaintzaren gabezia. Azken urteetan emakumeen taldeak sortu diren arren (arraunketan, errugbian, eskubaloian, etab.), herriko elkarteek Udalari nesken partaidetza handitzeko eta emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko estrategiak abian jartzeko laguntzeko eskaria luzatu diote.

Hala ere, eskola bakoitzeko matrikulazio datuak aztertuz gero, batetik bestera neska-mutilen partaidetza nabarmen aldatzen dela ikusten da. Mutilen partaidetza alebin eta benjaminetan matrikulatutakoaren %63 eta %83 artean kokatzen da eskola ezberdinetan; aitzitik, nesken partaidetza %11 eta %55 artekoa da.

**4 irudia: Hernaniko eskola bakoitzean matrikulatutakoaren partaidetza eskola kiroleko maila ezberdinetan 2016 (%)**



Iturria: Norberak egina Hernaniko Udaleko datuetatik abiatuta.

Beraz, eskola kirolean nesken partaidetza sustatzeko erabateko estrategia bat abian jartzeko beharra erakusten dute datuek. Arestian aipatu bezala, sozializazioak ere garrantzia izango du, baita familietan kirola egiteko moduak eta aisialdia antolatzeke moduak ere bai; baina hori kontuan hartuta ere, neska eta mutilen artean ezberdintasun nabaria agertzen da partaidetzari dagokionez. Taldeetan sexuen banaketaz gain –emakumeen jabekuntza, protagonismoa eta autonomia lantzeko-, emakume kirolarien ereduak eta kirol elkarteen eskaintzaren kalitateak ere eragingo du ziurrenik partaidetza mailan.

Hernaniko eskola kirolean partaidetza mistoa edo banatuaren inguruan hausnartzeko bi lan-saio burutu ziren eskola kiroleko koordinatzaileekin (Astigarragakoak barne) eta Udalean eskola kiroleko ardura duen kirol teknikariarekin. Lehen saioan, eskola kiroleko 6 koordinatzaileek, 5 gizon eta emakume batek, norbere kabuz eskola kirolean neska-mutilek banatuta parte hartzeko aldeko eta kontrako argudioak idatzi zituzten. Ondoren, neska-mutilek elkarrekin parte hartzeko aldeko eta kontrako argudioak idatzi zituzten. Saioaren amaieren, guztiek idatzitakoa bateratu eta eztabaidatu genuen. Bigarren saioan, datu kualitatibo eta kuantitatiboan azterketaren ondorioak aurkeztu ziren. Hona hemen modu batean edo bestean jokatzeko adierazi zituzten aldeko eta kontrako argudioak:

**1. Taula: Banatuta parte hartzearen aldeak**

POSITIBOAK	NEGATIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>-Praktikan nesken ahalduntzea indartzen da.</li> <li>-Nesken arteko harremanak estutzen dira; talde sentimendua/pertenentzia areagotzen da.</li> <li>- Erosotasun eremua, kirolean jarraitzeko modua.</li> <li>-Neska onak, edo abileziak dituztenak, salbuespen.</li> <li>Helburua neska guztiek abileziak garatzea izan behar da.</li> <li>-Neskek rol ezberdinak garatzeko esparrua izan daiteke.</li> <li>-Neskak eta kirolaren arteko harremana estutu edo indartzeko modua.</li> <li>-Kirola mutilena ez den beste ikuspegi batetik ikusteko aukera.</li> <li>-Neskentzat dibertigarriagoa, lotsa gutxiago, partaidetza gehiago... "aurpegia aldatu".</li> <li>-Norbere konfiantza / segurtasuna handitu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Mezu aldetik... elkarrekin jolastu eta gero banatzea (adb. neska bat badabil mutilekin).</li> <li>-Alde bakarreko harremanak sustatzeko arriskua.</li> <li>-Individualki erosotasun-eremuan geratzea; ikasteko esfortzurik ez egitea.</li> <li>-Gurasoek negatiboki ikustea. "Ni ziur nago, baina gurasoak...".</li> </ul>

## 2. Taula: Elkarrekin parte hartzearen aldeak

POSITIBOAK	NEGATIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>-Neska-mutilen harremanak sustatzea eskolatik kanpo (3 pertsonak).</li> <li>-Ikastolako ereduak eskolatik kanpo zabaltzea (2 pertsonak).</li> <li>-Neska zein mutilak eroso egoteko aukera, jende gehiago larunbatetarako.</li> <li>-Beste sexua ezagutzea.</li> <li>-Baloreak partekatzea.</li> <li>-Neska-mutilek elkarri errespetatzea.</li> <li>-Balore positiboak garatzea, eta gurasoen mezua ere haurrek barneratzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Mutilek protagonismoa hartzeko joera (2 pertsonak).</li> <li>-Neskek kiroleatik kanpo geratzeko arriskua; ez da haien eremua, ez identifikatzea.</li> <li>-Neskek kirolarekiko pertzeptzio negatiboa garatzea.</li> <li>-Mutilek bakarrik jokatu, neskek baztertu, gutxiago jokatu, autoestima gutxitu... kirola utzi.</li> <li>-Nesken partaidetza gutxitzea. Neskek gutxiago jarraitzen dute klubetan.</li> <li>-Genero desberdintasunak sortzea edo areagotzea; genero arteko lehia; bazterketa/talde ahulena. Kirola utzi.</li> <li>-Sozializazioa eta garapen psikomotorren abiapuntua ezberdina da neska eta mutilen aldetik.</li> <li>-Neskek ez dute iniziatiba lantzeko aukera berdina.</li> </ul>

Eskola kiroleko koordinatzaile guztiek bat egiten dute, teoriarik, oso ondo egongo litzatekeela aipatu baloreak neska-mutilek elkarrekin garatu ahal izatea. Baina guztiak ere ados daude egungo egoera ez dela horretarako egokia, eta nesken partaidetza sustatzeko hobe dela talde banatuak sortzea.

Alabaina, bai eskola kirolaren arduradun den udal kirol teknikariak, Manolo Aierbek, bai eskola kiroleko koordinatzaileek, jardueraren arabera planteamendua desberdina izan daitezkeela uste dute. Hau da, jarduera berezietan (igerilekua, olinpiadak, eta beste) neska-mutilek batera parte hartu dezaketela, eta jarduera horietan hezkidetzak ere lantzen saiatu; eta talde kirolean, zelai batean metroak irabaziz arerioak gailentzea helburu duten kirolean, neska eta mutilak banatzea. Modu honetan, batetik, talde kirolen bidez nesken jabetasuna landu eta kirolean jarraitzeko gogoak sustatu ahal izango da; eta bestetik, neska-mutilek kirola elkarrekin egin ahal izango dute eskola kirolaren oinarriko baloreak garatuz.

## 4.2 Pasaia-Lezo Lizeoko azterketa

Pasaia-Lezo Lizeoan 2016/2017 ikasturtean talde mistoetan parte hartzeko aukera ematea erabaki zuten hainbat gurasoen eskariari erantzuteko. Ondorioz, LH3 eta LH4ko haurrek, alebin eta benjaminek, eskola kirolean izena-emateko garaian hiru aukera izan zituzten: talde mistoa, nesken taldea edo mutilen taldea.

Pasaia-Lezo Lizeoak argi azaldu du eskola kirolaren bitartez baloreen garapena sustatu nahi duela, besteak beste, elkarbizitza, lankidetzeta eta errespetua landuz, jarduera fisikoaz gozatzeko aukera eskainiz, lehiakortasuna baztertuz, eta aniztasuna zein neska-mutilen berdintasuna ere ardatz izanik. Beraz, alde zuzenetik, neska-mutilen partaidetza mistoak ere onurak eragin ditzakeen iritzia zuten kirol koordinatzaile zein entrenatzaileek.

Pasaia-Udaleko kirol teknikariak, Ibai Saavedrak, proiektua hasi berria zela kontuan hartuta, Maider Andonegi Udal Berdintasun Teknikariarekin elkarlanean, esperientziaren norabidea generoaren ikuspegitik ebaluatzea proposatu zuen. Ebaluazioa egiteko, lehenik eta behin, Pasaia-Lezo Lizeoko kirol koordinatzaile eta entrenatzaileekin bilera bat burutu zen proposamena aurkezteko eta gaiaren inguruan haien ikuspegia ezagutzeko. Hasi ostean, Arentzeko ikuspegia azaldu genuen talde mistoek nesken partaidetzan duen eragin negatiboa azpimarratuz, eta aurrerantzean herrian dauden kirol talde mistoetan parte hartzeko aukerak murrizten dituela adieraziz. Azken batean, eskola kirolean hasi eta gero herriko elkarteetan jarraitzeko<sup>4</sup>, ezinbestekoa da agente guztien eta haien eskaintzaren arteko lotura sortzea. Jon Etxebeste kirol koordinatzailea, kirol elkartearen eskaintza kontuan hartzeko ideiarekin ados egon arren, eskola kirolak helburu

---

<sup>4</sup> Behar bada egongo dira EAEko kirol hastapenaren ereduarekin ados ez daudenak, baina egun horixe da daukagun eredu. Eta garrantzitsua da eskola kirolean eskaintzen diren jarduerak (guztiak ez, baina bai gehienek) herrian jarraipena izatea beste agente batzuek antolatutako eskaintza bitartez. Arestian aipatutako gain, eskola kirolaren helburuak badira ahalik eta kirol gehien probatzea; tresna ezberdinekin abilezia motoreak lantzea; bizi ohitura osasuntsuak sustatzea; kirolarekin disfrutatzea; etab. Eskolatik elkarteetara saltoa ondo antolatzen bada, aukera gehiago dago neska-mutilek kirola egiten jarraitzeko. Batzuek ere agerian jarri dute ereduak ez duela zertan kirol elkarteek barne hartzen duten lehiakortasuna jarraitu, eta badaudela beste aukera batzuk. Egia da egun beste kirol eskaintza berriak sortzen ari direla, esaterako, tradiziozkoak ez diren bat-bateko kirolak edo jarduerak (skating, parkour, etab.), edota kiroldegietan eskaintzen diren jarduerak (aerobik txiki, dantza, zumba, etab.); baina horiek ere modu antolatuan eskaini behar izaten dira nerabeen kirol jarduera bermatzeko. Egun neurtzeko dago kirol elkartearen baitan eta horietatik kanpo jarduera fisikoa egiten duten gazteen kopurua, baina ziurrenik, oraingoz, elkarteetan dauden neska-mutilek besteek baino kirol gehiago egiten dute. Beste kontu bat da kirol federatuak, eskaintza egiteko orduan, tradizioz haratago, estrategia eta modu ezberdinak diseinatu beharko lituzkeela, baina egun zaila da elkarteetan ez dauden neska-mutirik astean hiru aldiz eta astebururo haien kabuz kirola egiteko geratzen direla pentsatzea.



hezitzaileak lehenetsi beharko lituzkeela adierazi zuen. Hala ere, gure arteko hausnarketan ere aipatu zuen neskak talde misto ezberdinetan sakabanatuta egonda, agian zailagoa izango zela haiiek elkartu eta talde bat osatzea herriko kirol elkarte batean parte hartzeko.


Hipotesiak hipotesi, egoeraren azterketa egiteko plangintza diseinatu genuen. Metodologia adostuta, lanaren segimendua egiteko eta proiektuaren norabideaz hitz egiteko lau bilera egin ziren.

Azterketa egiteko hiru informazio Iturri erabili genituen: partaidetza datuak, galdeketa, eta behaketa erregistroak. Galdeketa eta behaketa erregistroa bereziki diseinatu genituen lan honetarako.

#### 4.2.1 Partaidetza datuak

2016/2017 ikasturtean guztira 172 haurrek parte-hartu dute eskola kirolean, horietatik 108 (%62) mutilak eta 64 (%38) neskak izanik. Partaidetza datuen arabera, benjamin eta alebin mailetan mutilen partaidetza matrikulatutakoen %65 eta %86 artean kokatzen da; neskena aldiz, matrikulatutakoen %58 eta %29 artean. Aipatzekoa da benjamin eta alebin kategorien artean nesken partaidetzan dagoen aldea.

5 irudia: Pasaia-Lezo Lizeoan maila ezberdinetan matrikulatutakoen partaidetza eskola kirolean 2016/2017 (%)




Iturria: Norberak egina Pasaia-Lezo Lizeoko datuetatik abiatuta.

Hala ere, garrantzitsua da kontuan hartzea kirol ibilbidean neska-mutilen partaidetza eta kirol-uztea aztertzeko ezinbestekoa dela urtez-urteko analisia egin eta bilakaera behatzea, haur hauek guztiek, eskola kirola amaituta, herrian edo eskualdean elkarreterara joaten diren ala ez ikusiz. Halaber, garrantzitsua da jarraitzen dutenek zein kirol eta noiz arte egiten duten azterzea.

Ikasturte honetan Pasaia-Lezo Lizeoan eskola kirolean parte hartu duten 172 haur hauetatik 57-k (%33) talde mistoetan parte-hartu dute; 40-k (%23) nesken taldeetan; eta 75-ek (%44) mutilen taldeetan. Mistoetan 34 (%60) mutilek eta 23 (%40) neskek parte hartu dute.

6 irudia: Talde mota bakoitzean izena-eman duten neska-mutilen kopurua




Iturria: Norberak egina.

Talde kopuruari dagokionez, 172 haur hauek 19 talde osatzen dituzte: 5 misto, 5 neskenak eta 9 mutilenak. 19 talde hauek 15 entrenatzaileek zuzentzen dituzte, 10 mutil eta 5 neskek. Horietatik hiru emakumek eta bi gizonek bina talde entrenatzen dituzte.

Jarraian azaltzen da entrenatzaileen prestakuntza maila sexuaren arabera, eta entrenatzen dituzten talde motak:

7 irudia: Entrenatzaileen prestakuntza sexuaren arabera eta entrenatzen dituzten taldeak



Iturria: Norberak egina.

#### 4.2.2 Galdeketak

Usadio ez izan arren, azterketarako metodologia diseinatzeko ari ginenean oso garrantzitsua iruditu zitzaigun haurren iritzia jasotzea, hots, egoerari buruz duten pertzeptzioa ezagutzeko. Horretarako, bi bertsio dituen galdeketa sortu genuen: talde mistoetarako bata, eta sexu bakarreko taldeetarako bestea. Galdeketa sei galderez osatuta dago eta, besteak beste, talde misto edo banatuan parte hartzea haiek aukeratu zuten; gustura zeuden; taldean kontuan hartzen zieten; eta guztiek berdina parte hartzen zuten galdetu zitzaien –galdera hau soilik talde mistoetan parte hartzen zutenei egin zitzaien-. Galdeketa eskola kirolean parte hartzen duten 172 haurrei ahoz pasa zitzaien banan-bana; eskola kiroleko entrenatzaileek pasa zuten, baina kontuan hartu genuen elkarrizketatzailea ez izatea erantzuten ari zen haurren entrenatzailea.

Ondoren datu guztiak SPSS (Statistical Package for Social Sciences) programa informatikoan sartu eta datu matrize bat osatu genuen analisia egiteko. Lehenik eta behin, hiru talde moten artean konparaketa egin genuen bariantzaren analisia aplikatuz haurren sexuaren arabera, talde mota horretan izena-ematea haiek aukeratu zuten; taldean gustura sentitzen diren ala ez; taldean

aportatzen duten sentsazioa duten; eta datorren urtean talde mota horretan jarraitzeko asmoa duten aldagaiak aztertuz. Pillai trazako emaitzek ez zuten azaldu sexu ( $F(1,162)=0,11$ ;  $p=0,97$ ) edota talde motaren ( $F(2,162)=1,92$ ;  $p=0,056$ ) araberako efektu estatistiko adierazgarririk.

Beraz, talde mistoetan parte hartzen duten haurren datuen analisisan zentratu ginen. Azterketa egiteko bariantzaren analisia egin genuen aldagai guztiak sexuaren arabera konparatuz.

**3. Taula: Talde mistoetan sexuaren araberako konparaketa aldagai ezberdinetan**

Aldagaia	F	gl <sub>1</sub>	gl <sub>2</sub>	Sig.
Zuk aukeratu zenuen	,573	1	55	,452
Gustura taldean	1,491	1	56	,227
Taldean aportatzen duzuna kontuan	6,394	1	56	,014*
Guztiak berdin parte hartu	1,733	1	56	,194
Nork gehiago	,044	1	56	,835
Datorren urtean jarraitzeko asmoa	,496	1	56	,484


\*Ez zen bariantzen arteko homogeneitate baldintza bete.

Iturria: Norberak egina.

Emaitza hauetatik ateratzen dugun ondorio nagusia da neska-mutilen artean ez dagoela desberdintasunik egindako galderen erantzunean. Alabaina, honek ez du esan nahi neska-mutilen partaidetzan ezberdintasunik ez dagoenik. Beraz, guretzat oinarritzkoa zen aldagaiean zentratu ginen talde mistoetan parte hartzen duten neska-mutilen iritzia ezagutzeko: *Guztiak berdin parte hartzen duzue? Eta erantzuna ezezkoa bada, nork parte hartzen du gehien?* Aldagai horietan neska eta mutilen aldetik jasotako erantzunen datu deskriptiboek informazio interesgarria ematen dute:

Talde mistoetan parte hartzen duten nesken %82,6k eta mutilen %70,6k diote guztiak ez dutela berdin parte hartzen.

**8 irudia: Guztiek berdin parte hartzen dute? galderari erantzuna.**



Iturria: Norberak egina.

Gehiago norke parte hartzen duen galderari honela erantzun zioten:


**4. Taula: Norke parte hartzen du gehien? galderari erantzuna.**

	Mutilek gehiago		Neskek gehiago		Beste erantzun bat		Aurreko galdera Bai erantzun	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Neska	13	56,5	0	0	6	26,1	4	17,4
Mutila	19	55,9	1	2,9	5	14,7	9	26,5

Iturria: Norberak egina.

Beraz, nesken % 56k eta mutilen % 55ek mutilek gehiago parte hartzen dutela diote.

**9 irudia: Nork parte hartzen du gehien? galderari erantzuna.**



Iturria: Norberak egina.

57 haurretatik 13k (%22) guztiek berdin parte hartzen dutela esan dute, eta 11 haurrek (%19) beste erantzun bat eman dute. Horretaz gain, zerbait gaineratzeko aukera eman genien. Jarraian azaltzen diran “beste erantzun bat” atalean jasotako aipuak eta oharrak:

**5 Taula: Haurrek gaineratutako iritziak**

OHARRA	Mutila	Neska
Gustora dago talde mistoan.		1
Abilenek gehiago parte hartzen dute.	1	1
Mutilek eta abilenek hartzen dute parte gehiago.	1	
Futbolearen batez ere mutilek gehiago.		1
Saskibaloian batez ere mutilek gehiago.	1	
Guztiek parte hartzea nahi du.		1
Ez da ausartu egia esaten.	1	4
Ez daki jarraituko duen.	1	
Neska hirukote batek ez du parte hartzen, ixkina batean geratzen dira.	2	
Neskek gehiago parte hartzea nahi du.		1
Neska gutxiegi daude.		1
Nahiago du nesken taldea.		1

Iturria: Norberak egina.

Oharretatik hainbat gauza ondorioztatu daitezke: batetik, nahiz eta talde mistoetan dagoen neskaren batek gustura dagoela adierazi, mutilek gehiago parte hartzen duten iritzia nahiko orokorra da. Esan behar da iritzi hori ere aurkitu dela nesken taldeetan (banatuetan) aritzen direnen oharretan:

**6 Taula: Nesken taldeetako partaideen iritziak.**

OHARRA	Neska
Taldean aportatzen duela konbentzitu gabe erantzun du.	2
Batzuekin ez da ondo moldatzen.	1
Ez zaio axola mistoan egon behar badu.	1
Ez zaizkio tranpak gustatzen eta bere iritzia kontuan hartzea nahi du.	1
<b>Jarraitzekotan banatuan.</b>	1
<b>Mistoan ez, mutilek ez dutelako pasatzen.</b>	1
Mistoan probatuko luke.	1
<b>Taldean oso gustora dago.</b>	1

Iturria: Norberak egina.

Bestetik esan behar da talde mistoetan zein mutilen taldeetan abilenak aipatu dituztela. Kontuan hartu behar da hori ere badela eskola kirolaren erronka, izan ere, mutilek ere mutilen artean bizi dituzte bazterketak. Funtsezkoa litzateke guztiek gozatu ahal izateko abileziak garatzeko saiakerak egitea, jarduera ezberdinak burutzea, laguntza ematea, giro aproposa lortzea, etab.

Honen harian, interesgarria da baita ere mutilen taldeetako haurren iritziak jasotzea hemen; badago hemen ere zer aztertu mistora joateko azaltzen duten asmoaz.

**7 Taula: Mutilen taldeetako partaideen iritziak.**

OHARRA	Mutila
Aitak aukeratu zuen talde mota.	1
Berdin zaio non jokatu. Etxean mutilekin jokatzeko esan zioten.	1
Berdin zaio banatuan egon ala ez.	1
<b>Datorren urtean mistora doa / Mistoa nahi zuen</b>	<b>7</b>
Gustatuko litzaioke taldez aldatzea.	1
Batzuetan ez dute kontuan hartzen bere iritzia.	1
Paseak taldeko kide jakin batzuei egiten dizkiete	1
Arraunean hasiko da, ez du jarraituko.	1
Futbolagatik zegoen apuntatuta.	2
Aspergarria iruditzen zaio.	1
Denbora falta dela eta ez du jarraituko.	1
Jarraituko du lagunekin egoteko eta partiduetara eramateko.	1

Iturria: Norberak egina.

Izan liteke neskek taldean jokatzeko beste modu bat azaltzen dutelako aukeratzea haiekin egotea; edo neskek malguagoak direla pentsatzea kirol-taldean edozein neska-mutil onartzeko orduan; agian, estereotipoak barneratuta, lehia gutxiago barneratu dute sozializazio prozesuan; behar bada txikitatik ez dute jaso kirolaren bitartez gorputzaren jabekuntza; edo ez dituzte gizartean haien indarra eta gaitasunak erakutsi behar mutilen haina. Baina baita ere izan liteke mutilek, nesken artean, mutilekin lortzen ez duten protagonismoaz gozatu nahi izatea. Egoera honek berriro haserako planteamendura eramango liguke: nesken protagonismo eta inizatiba eza.

Amaitzeko, azpimarragarria da talde mistoetan parte hartzen duten 30 mutilek (%88) eta 20 neskek (%86) hurrengo urtean jarraitzeko asmoa dutela erantzutea. Datuek agerian utzi dute mutilek neskek baino gehiago parte hartzen dutela, baina hala ere jarraitu egingo dutela diote. Gerta liteke agian neska hauek normalizat hartzea desberdintasun egoera bat; besterik ez dute bizi izan seguruenik -hau da, esperientzia positiboak nesken talde batean, hazi, jabetu, ereduak imitatu, ikasi, gorputzaz eta abileziak eskuratzeaz gozatu, etab.-; eta daukatena gustoko izan behar dutela onartu dute. Hipotesi hau kontrastatzeko, nesken talde batean aipatutako guztia bizi duten neskek mutilekin nahastean bizi dutena aztertu beharko genuke, baina ziur aski, egun mutilen artean ondo moldatzen diren nesken adibidea aurkituko genuke, hots, jabekuntza prozesua izan duten neskek, gorputzaren kontrola dutenak, eta kirolaz gozatzen dutenak baita mutilekin lehiatzen ere.

### **4.2.3 Behaketa erregistroak**

Behaketa egiteko erregistro bat diseinatu genuen. Bertan bi arlo ezberdindu genituen: kirolariek in zerikusia duten gaiak jorratzen zituena bata, eta entrenatzailearen jokabidearekin zerikusia zuena bestea<sup>5</sup>. Behaketa soilik talde mistoekin egingo genuela erabaki genuen. Jokalarien elkarrekintzan zentratuz, gure hipotesia taldekako kirolen baitan zehaztu genuenez, baloiaren norabidea aztertu genuen, hau da, partida batean zenbat aldiz igarotzen den baloia neska batetik bestera; neska batetik mutil batera; mutil batetik beste mutil batera; eta mutil batetik neska

---

<sup>5</sup> Txosten hau egiteko garaian haurren elkarrekintzaren analisisan zentratu garen arren, etorkizunean ere interesgarria litzateke entrenatzaileen jarrera aztertea, hau da, errefortzu negatiboak edo positiboak ematen dizkieten haurrei, edo zuzenketa teknikoak edo taktikoak egiten dituzten; eta ondoren informazio hori guztia entrenatzaileen prestakuntza eta sexua, eta haurren sexuaren arabera aztertea.




batera. Halaber, gola sartzeko saiakera edo inizatiba kopurua eta helburua (gola) lortzen zuten kopurua behatu genuen.

Erregistroaren pilotazioa astean zehar egin zen bi talde ezberdinen entrenamendua behartuz. Behaketak maiatzeko eta ekainean egin ziren, bi larunbat goizetan, eta bost talde mistoetatik lau behatu ziren, guztiak benjaminak. Lehen bi partiduak eskubaloikoak izan ziren, eta beste biak futbolekoak. Hiru behatzaileen artean bete ziren erregistroak: Pasaiako Udaleko kirol teknikaria, entrenatzaile bat, eta Auentoko teknikari bat. Behaketa egiteko orduan kontuan hartu zen zelaian zeuden neska eta mutilen kopurua berditsua zen ala ez.

Baloiaren norabideari dagokionez, eskubaloian zein futbolean mutilen arteko paseak izan ziren ia partida guztietan gehien behatu zirenak (134 guztira).


10 irudia: Baloiaren norabidearen portzentaiak behartutako partidetan



Iturria: Norberak egina.

Futboleko lehen partida izan zen neska-mutilen arteko paseak mutilen artekoak baino gehiago izan ziren partida bakarra.


11 irudia: Baloiazen norabidea behartutako partida bakoitzean



Iturria: Norberak egina.

Azken partidak izan ezik, beste hiruetan nesken arteko paseak izan ziren gutxien behatu zirenak (62 guztira). Azterketa kirolaren arabera eginez gero, eskubaloian mutilen arteko paseak dira gehien behatu zirenak (97); eta futboleko, nesketatik mutiletara eta mutilen artekoak kopuru berekoak izan ziren (39).

12 irudia: Baloiazen norabidea kirolaren arabera




Iturria: Norberak egina.

Esan behar da eskubaloiko partida bateko behaketan (1 partida izendatua irudietan), bi mutilek erabateko protagonismoa izan zutela, gehien bat baloia haiek mugitzen zuten eta haiek izan ziren botarean bidez alde batetik bestera aterako bidea hartu zuten bakarrak (7 aldiz). Neska bakar batek egin zuen atera botatzeko saiakera, eta atezainak gelditu bezain pronto harmailetara so egin zuen aitaren begiradaren bila, onespren bila akaso. Aipatu behar da baita ere, baloia galdu ostean neskek ez zutela borroka egiten berreskuratzeko; mutilek hartzeko keinua egiten zutenean orohar<sup>6</sup> azkar etsitzen zuten. Baita ere, atezainek lehen pasea mutilei emateko joera behatu zen, nahiz eta taldeko neskek bakarrik egon eta mutilak aurkariez inguratuta. Honek zentzua izan dezake inizatiba jokabide gehienak mutilek azaldu zituztela kontuan hartzen badugu.

Ondorengo irudian ikusi daitekeen moduan, partida guztietan mutilek neskek baino inizatiba jokabide gehiago azaldu zituzten, hain zuzen %78 eta %22 hurrenez-hurren.

13 irudia: Inizatiba kopuruak partida bakoitzean sexuaren arabera




Iturria: Norberak egina.

Azken batean, eskubaloian edo futboleko jokatzeko ikasten ari den haur batek kontziente edo inkontzienteki helburua (gola sartu) lortzeko aukera hobereak bilatu nahi izango ditu (berezi kirol testuinguru lehiakorrean).

<sup>6</sup> Aurrerantzean interesgarria litzateke aspektu hau ere behaketa erregistro bidez neurtzea.

Azkenik, partidetakolei dagokienez, gehienak mutilek sartu zituzten (%89), lau partidetan neskek guztira lau gol lortuta (%11).

14 irudia: Gol kopurua partida bakoitzean sexuaren arabera



Iturria: Norberak egina.

## 5. Ondorioak eta etorkizuneko erronkak

Hernani eta Pasaia-Lezo Lizeoan egindako azterlaneko datuek agerian utzi dute talde mistoetan neskek ez dutela mutilek bezain beste parte hartzen, eta gainera, haurrak hortaz kontziente direla. Taldeko kirolean, baloiaz aurkarien zelaian aurrera egiteko helburua duten kirolean mutilen arteko paseak dira nagusi, mutilek azaltzen dituzte iniziatiba jokabide gehienak, eta haiek lortzen dituzte golak. Gainera, datuen arabera ondorioztatu daiteke entrenatzaileen prestakuntzak egun ez duela hezkidetzak bermatzen kirol-taldeetan.

Ezin ahantz daitezke lan honetan iraganean eredu mistoa ezarri eta nesken partaidetzak behera egin zuela ikusita, eredu banatua berreskuratu eta mantendu duten herriak: Astigarraga, Beasain, Hernani eta Zumaia; eta banatuko balitz nesken partaidetzak gora egingo lukeela uste duten kasuak: Eibar eta Hondarribia.

Halaber, arlo honetan hausnarketa egin duten eta esperientzia duten adituek aho batez azaldu dute kirolean nesken jabekuntzarako espazioak sortzeko beharra, batez ere taldeko kirolean. Talde pertenezia, lidergoa, protagonismoa, norbere gorputzaren ezagutza eta gorputzaren jabekuntza, guztien garapena, mugatua izan da emakumeentzat historian zehar.

Oso zaila da kirol arlotik gizartean errotuta dagoen ezberdinasuna gainditzea; gizakiok kirolarekin gozaten hasi orduko, jada sozializazio prozesuan barneratu ditugu gure gizarteak ezartzen dituen estereotipoak eta estereotipo horiei egozten zaizkien jokabideak. Ondorioz, kirol arloan neska edo mutil izanagatik gizarteak gugandik espero duena egiten saiatzen gara. Eta honen adibide garbia da mutilek protagonismoa hartzea eta neskek amore ematea baloia galtzen dutenean. Onartze gustoko ez dugun arren, espazio publikoa oraindik gizonen eremua da, eta kirola ere bada honen adibide.

Hau guztia kontuan hartuta, **eskola kirolean neska-mutilek banatuta jokatu dezaten iritzia mantentzen dugu**. Egia da tarteko ereduak oso egokiak izan daitezkeela, esaterako, jarduera bereziak (orientazioa, piragua, herri kirolak, etab.) mistoak egiten jarraituz horietan hezkidetzak landuz, eta taldekako kirolean banatuta jokatuz.

Alabaina, eredu honek erabateko estrategia edo heziketa eredu baten barruan egon beharko luke, non familietatik hasita, sozializazio prozesua benetan emakume eta gizonen berdintasuna bermatuz gertatzen den, nesken alfabetizazio motora landuz, jarduera fisikoaren bidez gorputz

jabekuntza sustatuz, eta estereotipoak gaindituz. Honetaz gain, kirol arloko agente guztiek emakumeen kirola ere sustatzeko lan egin beharko lukete, kalitatezko giza baliabide eta baliabide materialak eskainiz eta ez, ohikoa den moduan, mutilen jarduera lehenetsiz. Eta eskola kirola amaitu eta bizitzako ondorengo aroetan kirolaz gozaten jarraitu nahi izatea, modua eta lekua dena delakoa ere. Garrantzitsua da neska-mutilek eskola kirola bukatzean egiten duten kirol ibilbidea ezagutzea lekuan-lekuko kirol politikak diseinatzeko.

Ezinbestekoa da baita ere emakume kirolarien ereduak erakustea, eta baita emakume entrenatzaile, epaile, fisioterapeuta, mediku eta kudeatzaileen ereduak ere. Funtsezkoa da nesken artean emakume hauek guztiak ezagutzera ematea eta haiengan proiektatu daitezkeen saiatzea.

Eskoletan proiektu orokorrak jarri daitezke abian, ikasgai ezberdinetan gizarteko eta bereziki kirol arloko desberdintasunak aipatuz, gai honen inguruan hausnartuz, ereduak erakustiz, gorputza eta jabekuntza landuz, etab.

Egun kirolerako hastapen ereduak neurri handi batean eskola kirola programa izanik, ezinbestekoa da matrikulatuta dauden haurren kopuru ahalik eta handienak eskola kirolean parte hartzea; bereziki neskekin eta familiekin lan egin beharko litzateke arlo honetan.

Halaber, behar-beharrezkoa da kirol esparruko koordinatzaile, hezitzaile, entrenatzaile eta begirale guztiek hezkidetzan prestakuntza edukitzea, eta benetan ikastea hezkidetzan oinarritutako kirol esperientziak sortzen.

Azkenik, kontuan hartu behar da neska-mutilek eskola kirolean banatuta parte hartzeko ereduak berrikusteko aukera dagoela. Emakume eta gizonen berdintasun errealean aurrera egin ahala, agian komenigarria izan daiteke eskola kirolean aldaketak egitea; eta behar bada iritsi daiteke memento bat ez izatea beharrezkoa neska-mutilak banatzea. Baina tamalez egun urruti gaude egoera horretatik, eta neska zein mutilek kirolean aukera berdinak edukitzea nahi badugu, oraingoz, egituratutako tadekako kirolean behintzat, neska-mutilak banatzea gomendatzen dugu. Eta banatzeaz gain, kirolean guztien gorputzaren jabekuntza eta gozamina gogoz sustatzea.

## 6. Bibliografia

Azurmendi, Ainhoa (2005). *Repercusión de la actividad institucional en la práctica deportiva de las mujeres en la CAE*. Andoain: Leizaran Grafikak.

Azurmendi, Ainhoa (2009). Zergatik uzten diote emakumeek kirola egiteari? Eragiten duten aldagai psikosozialak. Non: Itziar Alonso-Arbiol eta Miriam Gallarin (Eds.), *Generoa aztergai psikologian: egungo ikerketak* (235-251or.). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Azurmendi, Ainhoa (2016). *Obstáculos psicosociales para la participación de las mujeres en el deporte como entrenadoras y árbitras* (UPV/EHU, argitaratu gabeko Doktoradutza Tesia).

Buceta, José María (2004). *Estrategias psicológicas para entrenadores de deportistas jóvenes*. Madrid: Dykinson-Psicología.

Fontecha, Matilde (2007). *Intervención didáctica desde la perspectiva de género en la formación inicial de un grupo de docentes de educación física* (Doktoradutza Tesia). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Fontecha, Matilde (2016ko martxoak 9). Deporte y feminismo: una relación difícil. *Pikara Online Magazine*. Nondik eskuratuta:  
<http://www.pikaramagazine.com/2016/03/deporte-y-feminismo-una-relacion-dificil/>

Knijnik, Jorge (2015). Feminities and masculinities in Brazilian women's football: Resistance and compliance. *Journal of International Women's Studies*, 16(3), 54-70.

López Crespo, Clara (2007). Enseñanza mixta y enseñanza femenina: Los estereotipos en torno a la educación física y el deporte. *Revista digital Hispanomexicana de la Educación Física y el Deporte*, 1(1), 5-14.

Martín, Montse (2006). Contribución del feminismo de la diferencia sexual a los análisis de género en el deporte. *Revista Internacional de Sociología*, 64, 111-131.





[www.aventoconsultoria.com](http://www.aventoconsultoria.com)